

## ALKATEAREN DEKRETUA

Lasarte-Orian, bi mila eta zortziko urriaren hogeita zazpian.

Ikusirik Lasarte-Oriako Udalaren Kirol Instalazioen Garbiketa Zerbitzua kontratatzeko espedientean jasoak dauden Klausula Administratiboen Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria eta lanen maiztasuna eta irispidea jasotzen dituen eranskina.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzeko 7/1985 legearen 21. artikulua ematen dizkidan eskumenen bertutez.

### EBATZI DUT:

Lehenik.- Lasarte-Oriako Udalaren Kirol Instalazioen Garbiketa Zerbitzua kontratatzeko espedientea onestea.

Bigarrenik.- Adjudikazioko prozedura gisa, prozedura irekia, eskaintza ekonomikoki onuragarrienaren araberakoa eta adjudikatzeko hainbat irizpideren araberakoa onestea.

Hirugarrenik.- Klausula Administratibo Partikularren Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria eta egin beharreko lanen maiztasuna eta irispidea jasotzen dituen eranskina onestea.

Laugarrenik.- Adjudikatzeko prozedura abiatzeko erabakia hartzea, kontratua formalizatzen den arteko urrats guztiak betez.

Bosgarrenik.- **Urteko ehun eta hogeita hemeretzi mila euroko gastua baimentzea (139.000,00 euro)**, aurrekontuko 1 0503 227 01 452 00 kontu sailaren kargura (Garbiketa Zerbitzua).

## DECRETO DE ALCALDÍA

En Lasarte-Oria a veintisiete de octubre de dos mil ocho.

Visto el Pliego de Cláusulas Administrativas, el Pliego de Condiciones Técnicas y el anexo en el que se recogen la frecuencia y alcance de los trabajos, que constan en el expediente de contratación del Servicio de Limpieza de las Instalaciones Deportivas Municipales de Lasarte-Oria.

En virtud de las competencias que me confiere el art. 21 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

### HE RESUELTO:

Primero.- Aprobar el expediente de contratación del Servicio de Limpieza de las Instalaciones Deportivas Municipales de Lasarte-Oria.

Segundo.- Acordar como procedimiento de adjudicación, el procedimiento abierto, oferta económica más ventajosa, con varios criterios de adjudicación.

Tercero.- Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas particulares, el Pliego de Condiciones Técnicas y el anexo en el que se recogen la frecuencia y alcance de los trabajos a realizar.

Cuarto.- Acordar la apertura del procedimiento de adjudicación con el cumplimiento de todos los trámites, hasta la formalización del contrato.

Quinto.- Autorizar un **gasto por importe de ciento treinta y nueve mil euros anuales (139.000,00 euro)**, con cargo a la partida presupuestaria 1 0503 227 01 452 00 (Servicios de Limpieza) del vigente presupuesto.

Nire aurrean — Ante mi,  
Idazkaria — El Secretario